

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE

ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES

VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak datorren maiatzaren 22ko hauteskunderi loturiko esteka jarri du webgunean

Webgunearen bidez zuzenean jarraitu ahal izango da Parlamenturako eta Foru Erkidegoko kontzejuetarako hauteskundeetako bozen zenbaketa

Miércoles, 13 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak datorren maiatzaren 22an egingo diren [Parlamenturako eta Kontzejuetarako hauteskunderen inguruko esteka bat jarri du euskaraz eta gaztelaniaz webgunean.](#)

Foru Gobernuak, zenbaketa prestatzearen ardura izango duen Hauteskunde Batzordearen bidez, hauxe jarri du webgunean: [botoa nola eman](#) azalduko duen informazio erabilgarria, [hauteskunderen egutegiko](#) data garrantzitsuenak, izapideak egiteko epeak, esate baterako, posta bidezko botoa eskatzeko edo [hautagai zerrendak aurkezteko](#), [ikusteko desgaitasuna duten pertsonak braillez dagoen botoa emateko aukerari](#) buruzko araudia edo argibideak. Hauteskunderen gauan, gainera, webgunearen bidez behin-behineko emaitzak jarraitu ahal izango dira.



Hauteskunderen inguruko informazioa duen esteka, Nafarroako Gobernuak prestatutakoa

Webguneak zortzi atal nagusi ditu: hauteskunderen araudiari buruzko alderdiak, botoa postaz emateko moduak eta atzerrian bizi direnentzako argibide espezifikoak, gutun-azalen deskribapen zehatza, [hauteskundeetan erabiliko diren boto-txartelak eta hautestontziak](#) eta hauteskundeetan hautagai zerrenda aurkezteko behar diren epeen eta baldintzen inguruko informazioa, eskudunak diren hauteskunde batzordeetara igorri beharreko inprimaki egokiak barne.

[Ohiko galdera batzuen](#) atala ere badu eta atal horretan honako hauen inguruko informazioa azaltzen da: hauteskunde egutegia, hauteskunde sistemaren inguruko azalpenak eta hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea duten pertsonak, hauteskunde mahaian botoa emateko jarraitu beharreko pausoak, hautesle-errodan okerren bat egonez gero egin beharreko izapideak edo hauteskunde mahaiko kide

izateko aukeratzen diren herritarren eskubideak eta betebeharrak.

Webgunean [eserlekuak banatzeko D'Hondt metodoaren](#) azalpenak eta adibide praktikoak azaltzen dira, D'Hondt metodo horren bidez eserlekuak boto kopuruaren arabera banatzen dira. [Aurreko urteetako hauteskundeetako emaitzei](#) buruzko informazioa duen kapitulu berezia ere badu.

Datorren maiatzaren 22ko hauteskunde gauean, webguneak hauteskunde behin-behineko emaitzak zuzenean jarraitzeko aukera eskainiko die Interneteko erabiltzaileei botoen zenbaketa egin ahala. Parlamenturako behin-behineko emaitzak eta kasuan kasuko eserlekuen banaketa zein Nafarroako udalerrri bakoitzeko botoen emaitzak plazaratuko dira.